

ERRUSIAKO ERREALISMOA

ILYA REPIN ETA LEV TOLSTOIREN

ESKUTIK

Egilea: **ANDERE ELENE OLASO MENDIBIL**

Gradua: Artearen Historia

Saila: Artea eta Musikaren historia

Tutorea: Francisco Javier Muñoz Fernández

2015/2016 Ikasurtea

LABURPENA

Lan honen bidez, Errusian XIX. mende erdialdetik aurrera garaturiko errealismoaren ezaugarri nagusiak jorratuko dira. Garai hartako Errusiako pintura eta literatura aitzaki harturik, errealismo errusiarraren bihotzean murgilduko gara. Hau aurrera eramateko, Ilya Repin, Errusiako margolari sozial handiaren eta Lev Tolstoi, ospe internazionalerako idazlearen lanak eta pentsamendua aztertuko dira. Bi hauek Errusiako errealismoaren ardatz nagusienetakoak ditugu eta ikuspegi nahiko zabal eta aldi berean pertsonala eskaintzen digute. Bi pertsonaien arteko loturak izugarriak dira, bai jorratzen dituzten gaien aldetik eta baita hauek lantzeko moduari dagokionean ere. Errealismoaren xede nagusia bizitza erreala azalratzea izango da, errusiar gizartea eta herritarra izango dira orain protagonistak, zeini pintura eta literaturaren bidez ahotsa emango zaien.

Testuinguruan kokatzeko, lehenik eta behin, Errusiako XIX. bigarren mende erdiko egoera sozio-politiko eta kulturala azalduko da. Errusiako herrialdearen berezitasun nagusienak aipatuko dira, hauek erabateko baldintzak izan baitziren herrialdearen nortasun eta garapenari zegokienean. Biztanleriaren gehiengo zabalena nekazariak ziren eta burgesia berriz gutxi batzuek baino ez zuten osatzen. Gizarte egoera berezi honek erabat eragin zuen kulturen eta noski baita artean ere. Ondoren, Errusiako garaiko artearen egoeraren ikuspegi orokor bat emango da eta berdina egingo da literaturarekin ere. Gero bi maisu errusiar handi hauen biografia labur bat eskainiko da, hauek behar bezala aurkezteko eta jarraian bi autoreen arteko harremanean sartuko gara. Erlazio bikoitza landuko da, bai lagun moduan izan zutena eta harik ere interesgarriagoa beraien arteko loturei eta antzekotasunei dagokiena errealismoa jorratzerako orduan. Ilya Repin margolariaren lanak oinarri moduan harturik, gai desberdinak jorratuko dira Lev Tolstoiren idatziekin konparatuz. Nekazarien gaiak, erlijioari lotutakoak, gizakion arazo existentzialen ingurukoak eta antzekoak landuko dira pintura eta literatura lagun ditugula. Repinek Tolstoiri eginiko erretratuak ere oso esanguratsuak izango dira lan hau osotasunez ulertzeko.

Azkenik ikerketa lan honen ondorioak plazaratuko dira. Hausnarketa propio eta pertsonalak dira lan honekin ikasitakoaren arabera eginak. Errusiako errealismoa oinarri harturik, Repin eta Tolstoiren arteko lotura izan da lan honen benetako funtsa eta emaitzarik interesgarriena, bakoitzak bere arlotik berdina aldarrikatu izan baitzuten.

AURKIBIDEA

1. ERRUSIAKO XIX. MENDE ERDIALDEKO EGOERA SOZIO-POLITIKOA.....	4-5.orr
2. XIX. MENDE ERDIALDEKO ERRUSIAR KULTURA	
2.1.Artea.....	5-7.orr
2.2.Literatura.....	8-9.orr
3. ILYA REPINEN BIOGRAFIA.....	9-10.orr
4. LEV TOLSTOIREN BIOGRAFIA.....	10-11.orr
5. REPIN ETA TOLSTOIREN ARTEKO HARREMANA	
5.1.Sarrera.....	11-12.orr
5.2.Nekazari eta langileen gaiak.....	13-18.orr
5.3.Gai erlijiosoak.....	18-20.orr
5.4.Damua eta barkamenaren gaia.....	21-23.orr
5.5.Tolstoiren erretratuak.....	24-26.orr
6. ONDORIOAK.....	27-29.orr
7. BIBLIOGRAFIA.....	30-31.orr

1. ERRUSIAKO XIX. MENDE ERDIALDEKO EGOERA SOZIO-POLITIKOA

Errusiaren berezitasuna Mendebaldeko Europarekiko oso esanguratsua izan da beti. Errusiak mende askoan ez du historia europarrik izan, are gehiago Europari uko egin dio. Hau batik bat, arrazoi geografikoengatik, itsasoaren urruntasunagatik; arrazoi historiko erlijiosoengatik, non kristautasun ortodoxoa den nagusi eta arrazoi politikoez ekarritako inbasioengatik gertatu da. Guzti honek isolamendu eta inkomunikazio egoeran izan ditu errusiarrak mende askoan, bere ezaugarri eta berezitasun propioak garatu dituztelarik. Guzti honen ondorioz, Errusian etengabe mendebaldekoetasunaren aldekoak eta aldi berean Eslabofilo sutsuak aurkituko ditugu historian zehar.

XIX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera Errusiak aldaketa nahia bizi zuen. Nikolas I.aren erregealdi despota bukaturik, Alejandro II.a Tsarraren agintaritzapean nolabaiteko gizartearen demokratizazioa eman zen. Modernizazio sozial oso leun baten adibide izan ziren mirabetzaren deuseztatzea, unibertsitatearen zabalkuntza, administrazio lokalaren autonomiaren handitzea, justizia eta armadaren berrikuntza edota nolabaiteko hazkunde ekonomikoa¹. Dena dela, Europako mendebaldea kapitalismoarekin jolasean zebilen bitartean, Errusian oraindik Erdi Aroko tradizio feudala bizi bizirik zegoen. Nekazari errusiarrek esklabutza eta morroi gisa bizirauten zuten, populazioaren gehiengo zabalena osatzen zutelarik². Nekazari hauek, *Mujik* izenekoak, miseria gorrian bizi ziren. Egoera larri honek inizatiba indibiduala moztu eta herrialdearen garapen ekonomikoa eten zuen, errusiarren auto-estimua eta kontzientzia nazionala minduz. 50. hamarkadan jada mirabetza ekiditeko beharrian argia ikusten zen, honen adibide ditugu Lev Tolstoiren hitzak: “*Nire zerbitzariekin dudan harreman honek jada benetako ezinegona sortarazten dit*”³. 1861ean *Mirabeen Askapena* izenarekin ezagutzen den erreforma onartu zuen erregeak eta aurreko esklabutza egoeratik nolabait askatu arren, erreforma partziala baino ez zen izan. Jakin beharra dago, nekazari hauek oraindik ere lurjabeei lotuta jarraitzen zutela eta ez zela benetako aldaketarik lortu 1917ko iraultzan behin betiko askeak bihurtu arte.

¹ BIENZOBAS, E. *Rusia en el siglo XIX*, Madrid, Akal, 1986, 22-28.orr.

² IOVLEVA, L. “El arte ruso de la segunda mitad del siglo XIX: Los ambulantes, Pavel Tretiakov y su galería”, In: *¡Rusia!: novecientos años de obras maestras y colecciones magistrales (erakusketako katalogoa: martxoaren 29tik irailaren 3ra, 2006)*, Bilbao, Guggenheim Bilbao Museoa, 2006. 132-139.orr.

³ TOLSTOI, L. *Diarios (1847-1894)*, Barcelona, El Acantilado, 2002, 148.orr.

Biztanleriaren gutxiengoa berriz aristokraziak, lurjabe handiek eta merkatari talde gutxi batzuek osatzen zuten, ekonomikoki mailarik erosoena izanik. Guzti honen ondorioz, egoera soziala guztiz asimetrikoa eta bidegabea zen. Analfabetatze tasa izugarria zen. Erdi maila ia ez zen existitzen, hiri nagusietan kokatzen zen batik bat. Ondorioz, Errusian ez zen garapen industrialik ezta iraultza burgesik eman mendebaldean gertatu zen legez eta honek zuzenki eragingo zuen artean ere noski⁴. Egoera guzti honen aurrean errusiar gizarteari nekazarien etorkizuna benetan ardura zitzaion eta honen isla literaturan, artean, kazetaritzan edota musikan ikusiko dezakegu.

2. XIX. BIGARREN MENDE ERDIKO ERRUSIAR KULTURA

2.1. Artea

XVIII. mendetik aurrera elite sozialetatik eratorritako *Intelligentsia* izeneko talde bat sortu zen, kulturaren garapenarekin konprometitutakoa eta XIX. mendean benetako garrantzia hartuko zuen kulturaren munduan zuzenean eraginez. Kideak beren jatorri noblei uko egin eta herri xumearekin erlazionatzen hasi ziren, herrialdearen eraldaketa sozio-ekonomikoa sustatuz Tsarismoaren erreformen aurka. Taldearen kide izan ziren artista eta idazle demokrata asko, tartean Nikolai Dubroliubov edota Nikolai Chernishevski errealismoaren teorialari nagusia adibidez. Hauek nekazarien iraultza aldarrikatu zuten “*Lurra eta askatasuna*” lemapean. Egoera honetan beraz, kulturak demokratizazioranzko bidea eta era berean errealmoranzkoa hartuko zuen. Chernichevskik, Errusiar *Intelligentsia*-ren aitak, errealismoaren gainean hitz egin zuen jada bere doktorego tesian *Artearen eta Errealitatearen arteko erlazio estetiko* (1853) lanean hain zuzen ere⁵. Visarion Belinski pentsalariak ere artearen erabilgarritasuna aldarrikatu zuen, artea, estetika eta ideologiaren nahasketa izan behar zela esanez. Nikolai Nekrasov olerkigileak berriz, hurrengoa zioen: “*Poeta izan ordez, hiritar izan behar du artistak*”⁶.

⁴ BLANCH, A. *León Tolstoi, un profeta político y evangélico*, Barcelona, Cristianisme i Justicia, 2013, 5.orr.

⁵ JACKSON, D. *The Russian Vision: The art of Ilya Repin*, Schoten, BAI, 2006. 24.orr.

⁶ IOVLEVA. L. *Op.cit* 132-138.orr.

1863.urtean San Petesburgoko Akademian graduaturiko hamalau artista gaztek, akademiako kontseiluari azken lehiaketan margotzeko gaia librean izatea eskatu zioten, baina erantzuna ezezkoa izan zen. Akademia oso kontserbatzailea zen eta iraultzaren beldurra zuen. Artista gazte hauek askatasun artistikoaren bila, Ivan Kramskoi margolari eta kritikaria buru zutela, lehiaketari uko egin eta akademia utzi zuten. Egoera honetan, San Petesburgoko artistek *Artela* sortu zuten, Errusiako artista independenteez osaturiko lehenengo elkarte. Taldeak gutxi iraun zuen 1870 arte eta lorpen artistiko esanguratsurik lortu ez arren, erabat funtsezko mugimendua izan zen artearen askatasunari zegokionean.

1860tik aurrera Moskun eta San Petesburgon tendentzia artistiko berriak jaio ziren, errealismoak geroz eta indar gehiago zuelarik. Orain *Artela* baino erakunde zabalago baten beharra ikusten zuten, beraz 1869.urtean Moskuko eta San Petesburgoko artista batzuk batu eta erakunde berri bat sortu zuten *Peredvizhniki* izenekoa. 1870eko azaroaren 2an *Peredvizhniki* taldearen, hau da, erakusketa ibiltarien taldearen, estatutuak sinatu ziren. Erakunde honen helburu nagusia Errusian zehar erakusketak sortzea zen, errealismoa oinarri, ikusle berrien bila eta parte hartzaileen obrak salduz. Sozialki konprometitutako artista talde bat izan zen. Askatasunaren ideia zen nagusi⁷. Erakunde guztiz anti-akademizista izan zen, Errusia zeharkatu nahi zuten helburu propagandistiko batekin⁸. Irabaziak elkar laguntzeko eta erakusketa berezietarako erabiliko ziren. Taldeak berrogeita hamar urte iraun zituen, ez da iraupenean honen parekorik egon Europa osoan. Dena dela, urrezko urteak XIX. mendeko azken laurdenean eman ziren. Errusiako artistarik handienak bertan zeuden, tartean Nikolai Ge, Ivan Shishkin, aipaturiko Ivan Kramskoi gidari bezala, Vasili Surikov edota Isaak Levitan adibidez. Erakundearen slogana: “*Bizitzaren egia*”⁹ izan zen. Artista ibiltarien taldearen gai nagusiak bizitza popularraren egia eta poesia, historia nazionala eta natura errusiarra izan ziren. Artea garaikidea, bizia eta sozialki baliagarria izan behar zenaren ideia bultzatu zuten, Joseph Proudhon pentsalari iraultzaile eta Gustave Courbet margolari frantsesekin ados zetozen beraz. Aztergai dugun Ilya Repin taldeko partaide nagusienetako bat izan zen, *Konfesioa ukatzen (1879)* edota *Propogandista baten*

⁷ JACKSON, D. *Op. cit.* 12.orr.

⁸ STEINER, E. “A battle for the ‘People’s cause or for the market case: Kramskoi and the Itinerants”, *Cahiers du Monde russe*, EHESS, 50.bol, 4.zk, (2009 urria-abendua), 627-646.orr.

⁹ IOVLEVA. L. *Op.cit.* 134.orr.

atxiloketa (1892) (1.irudia) izeneko obrak adibidez, talde ibiltariaren estiloaren erakusle argiak dira¹⁰. Lev Tolstoiren hitzetan, arte ona derrigorrez zintzoa, altruista eta unibertsalki eskuragarria izan behar zen; Erakusketa Ibiltarien Taldearen ideiekin bat zetorren beraz. Repinek ondorengo aldarrikatuko zuen: “*Edertasuna egian aurkitzen da*”.



1.Irudia. *Propagandista baten atxiloketa* (1892)

Sergei Mikhailovich Tretyakov talde ibiltariaren mezenas eta funtsezko bultzatzailea izan zen¹¹, bere hitzetan “*Ez dut natura aberatsik, ezta konposizio txundigarriarik, ezta argi efektu miragarriarik behar. Putzu zikin bat nahikoa da bertan egia badago, poesia badauka, poesia edonon baitago. Artistaren lana hau aurkitzea da*”¹². Hitz hauetan ikusten den moduan, errealismoarekin eta ondorioz artista ibiltarien filosofiarekin bat datorren pentsamendua zuen. Tretyakov-ek Errusiako artearekin lotutako lehenengo museo publikoa zabaldu zuen, egun bere izena daraman Moskuko galeria esanguratsua delarik. Errealismo errusiarraren garaiko pertsonaia esanguratsua dugu, asko lagundu baitzuen honen garapen eta hedapenean.

¹⁰ STAVROU, T.G. (ed.), *Art and culture in the nineteenth-century Russia*, Bloomington, Indiana University Press, 1983. 132.orr.

¹¹ GRAY, C. *The russian experiment in art 1863-1922*, London, Thames and Hudson, 1962. 11.orr.

¹² IOVLEVA. L. *Op. cit.* 134-135.orr.

2.2. Literatura

XIX. bigarren mende Erdiko literatura errealista ulertzeko beharrezkoa dugu, Visarion Belinski-z, Errusiako estetika errealistaren fundatzaile eta kritikoa mintzatzea. Autore honek ez zuen “*artearen artea*” onartzen, literaturari funtzio pedagogiko bat eman nahi zion. Literaturak izpiritua, barneko bizitza eta herriaren izaera irudikatu behar zuela uste zuen Belinskik eta autoreak herri xumearen alde egin beharko zuela beti¹³. Momentu hartatik aurrera, eguneroko arazoak publizitatean ez ezik literaturan ere jorratzen hasi ziren, literatura errealistari jaiotza emanez. Belinski teorialariaz aparte, Nikolai Gogol idazlea ere aipatu beharra dugu, literatura errusiar errealistaren aitzindaritzat jo baita. Gogolen *Arima hilak (1842)* liburua errusiar literaturaren lehenengo obra modernoa kontsideratzen da. Ilya Repin margolariaren idazlerik kutunena ere bazen Gogol gainera. Idazle errealisten gai nagusia nola ez nekazaria eta herritar errusiarra izan ziren.

Aleksandr Pushkin olerkigilea erromantizismoaren eta errealismoaren artean mugitu zen eta funtsezko pertsonaia izan zen errealmoranzko bidea zabaltzeko, hau izan baitzen “*persona arrunt txikia*” bereziki landu zuen lehenengo autore errusiarra. 1830 eta 1840. urteen artean errealismo kritikoa izeneko korronea eman zen errusiar literaturan eta bertan jorratuko zen hain zuzen ere “*persona arrunt txikia*”, hau da, istorio dramatiko eta egunerokoak bizi dituen maila sozial baxuko pertsonaia hain zuzen ere¹⁴. Pushkinek 1836an *Garaikidea* izeneko aldizkari esanguratsua sortu zuen, bertan komentario sozialak eta literarioak tartekatzen ziren, autore errusiar garrantzitsuenen lanak publikatzen zirelarik. Autore errealista nagusien artean Aleksandr Herzen-ek bizitza sozialaren filosofia planteatu zuen askatasuna galdu zuten horiei zuzendua¹⁵; Ivan Turgenev-ek landa giroko nekazariaren inguruan idatzi zuen; Aleksei Pisemski-k arazo sozialak jorratu zituen; Nikolai Nekrasov olerkigile eta antzerkigileak ere gai errealistak jorratu zituen eta azkenik nola ez errusiar literatura errealistaren bi zutabe nagusiak aipatu beharko genituzke Fiodor Dostoyevski eta aztergai dugun Lev Tolstoi¹⁶. Dostoyevskik gizakiaren psikologia aztertu zuen bere garaiko errealtatearen irudi bat sortuz, honen eredu dugu *Lurpeko memoriak (1864)* izeneko eleberri ospetsua.

¹³ WAEGEMANS, E. *Historia de la literatura rusa desde el tiempo de Pedro el Grande*, Madrid, Ediciones Internacionales Universitarias, 2003. 153-154.orr

¹⁴ CORNWELL, N. (ed.), *Reference guide to Russian literature*, London, Fitzroy Deaborn, 1998. 681.orr.

¹⁵ SARABIANOV, D. *Russian art: from neoclassicism to the avant-garde: painting, sculpture, architecture*, London, Thames and Hudson, 1990. 102-103.orr.

¹⁶ WAEGEMANS, E. *Op.cit.* 153-170.orr.

Esan bezala, errealismoaren beste maisu handia Tolstoi dugu eta ondoren beren biografian murgiltzerakoan ikusiko dugun bezala, honen ibilbide literarioa oso zabala eta luzea izan zen.

XIX. mende amaieran Errealismo Soziologikoa izenarekin ezagutzen dugun korrante literarioa nabarmendu zen, gizarteko pertsonaien eta gizartearen beraren aldaketak analizatzen ziren. Honen ordezkari nagusia Anton Chekhov izan zen, idazle eta antzerkigile honek ikuspegi errealista ukitu filosofiko eta giza zentzu handiarekin landu zuen. Honen adibide *Osaba Vania (1899) izeneko* antzerki lan ezaguna dugu. Mende amaieran, Maxim Gorkiren eskutik errealismo sozialista ere finkatu zen jada.

Lehenago aipaturiko Errusiako testuinguru soziala zela eta, ezinbestez arteak eta literaturak gai sozialak landu zituzten etengabe, gizarteko herritar zapalduenen eskubideak defendituz¹⁷.

3. ILYA REPINEN BIOGRAFIA

“Errusiako margolaririk onena” bezala ezagutua eta Vladimir Stasov kritikariaren hitzetan “*errusiar pinturaren Sanson*”¹⁸ izan zen gure artista. Ilya Efimovich Repin 1884ko uztailaren 24ean jaio zen Ukraniako Chuhuiv herrian, Jarkov-eko eskualdean. Familia militar baten baitan hasi zen, sozialki nekazariak baino zertxobait hobeto bizi ziren, baina ahala eta guztiz ere haurtzaro gogorra eta miseria ondo ezagutu zituen. Repinek oso gaztetatik izan zuen artearekiko interesa. Hamaika urterekin herriko Topografia Militarreko Eskolara bidali zuen amak eta bertan ikasi zuen margotzen. Jada artearekiko interes eta gaitasun handiak erakusten zituenez, herriko ikono margolaririk ezagunenaren, Ivan Bunakov-en, tailerreko ikasle bilakatu zen geroago. 1863.urtean Ukraniako elizetarako egindako obregandik jasotako diruarekin San Petesburgora abitu zen bertako Arte Akademia Inperialean ikastera. Ivan Kranskoirekin, *Artel*-aren eta *Peredvizhniki* taldearen fundatzailearekin, ikasi zuen denboraldi batez eta oso lagunak egin ziren. 1873-76 urteen artean akademiako sari bati esker Repinek Italia

¹⁷ SARABIANOV, D. *Op.cit.* 103.orr.

¹⁸ ALLENOV, M. et al. “El arte de la segunda mitad del siglo XIX”. In *Summa Artis: Historia general del arte - Arte ruso*, Madrid, Espasa calpe, 1998. 44.bol. 460-522. orr.

bisitatu zuen eta ondoren Parisen ezarri zen denboraldi batez, non Gustav Courbeten obra errealistak eta baita inpresionistenak ezagutu zituen. Parisgo etapa bukatu eta Ukrainara eta ondoren Errusiara bueltatuko zen berriz. 1880. hamarkadan Repin Errusiako margolaririk nagusiena bilakatu zen dudarik gabe. Moskun Savva Mamontov negozio gizon aberatsa artistaren babesle bilakatu zen¹⁹. Honek Abramtsevo-ko eskualdean zenbait musikari eta artista errusiarrentzat babesleku zen etxe bat zuen, non intelektualeria batzen zen eta tartean gure artista. Repin akademiako ikasketak burutu ondoren, Erakusketa Ibiltarien Taldera batu zen, oso momentu goiztiarretik errusiar arte propio batean sinesten zuela errebindikatu baitzuen²⁰. Urte askoan arituko zen taldearekin lanean. 1899.urtean Finlandiako Dukerri Handira leku aldatuko zen, *Penateak* izeneko bere etxera. 1917ko Errusiar Iraultzak benetako eragina izan zuen beregan. Sobietar munduari dagokionean berriz jada adineko gizona zen eta osasun arazoak direla eta Errusiara bueltatzea errefusatu zuen. Garai honetan erlijio gaietara bueltatu zen. 1930eko Irailaren 29an hil zen, bere etxe inguruko zelaietan lurperatua izan zelarik.

4. LEV TOLSTOIREN BIOGRAFIA

Lev Nicolaevich Tolstoi kondea 1828ko Abuztuaren 28an jaio zen Yasnaya Polianan, Errusiako Tula erregioan. Lev jatorri nobleko familia baten baitan jaio zen. Kazaneko unibertsitatean Ekialdeko Hizkuntzak ikasi zituen lehenengo eta ondoren Zuzenbide ikasketak Bukatu zituen San Petesburgon. 1851.urtean armadan sartu zen, Kaukason eta Crimeako gudan aritu zelarik. Momentu honetan bertan hasi zituen beren ekintza literarioak, *Garaikidea* aldizkarian batik bat. Turgenevek “*Lur Errusiarren idazle handia*” deituko zion idazleari²¹. Beren lehenengo obra esanguratsuak *Haurtzaroa (1852)*, *Nerabezaroa (1854)* eta *Gaztaroa (1856)* ditugu, autorearen biografian oinarritutakoak. Honetaz aparte aipatzekoak dira Tolstoiaren egunerokoak, bizitza osoan zehar idatzi baitzituen, beren biografia eta pentsamoldea ezagutzeko funtsezkoak bilakatu direlarik. Gudako krudeltasuna eta zentzugabekeria ikusirik, armada ustea erabaki zuen eta Europa Mendebaldera bidaiatzea erabaki zuen. Momentu hartatik aurrera idazleak betirako arbuatuko eta kriminalizatuko zuen edonolako

¹⁹ GRAY, C. *Op.cit.* 14.orr.

²⁰ SARABIANOV, D. *Op. cit.* 112.orr.

²¹ TOLSTOI, L. *Cartas*, Barcelona, Edicomunicación, 1999, 5.orr.

biolentzia, bai bere bizitzan eta baita noski bere lanetan ere. Bidaia hauetan besteak beste Proudhon ezagutu zuen honek beregan benetako eragina izan zuelarik. Frantziarrak estreinakoz artea ikuspuntu estetikoetik baino alde sozialetik aztertu zuen eta hau izan zen Tolstoiek egingo zuena hain zuzen ere. Errusiara bueltatzean, arazo pedagogikoez interesatu zen, hala nola, Yasnaya Poliana inguruan nekazarien haurrentzako eskola herritarrak sortu zituen²². Tolstoiek bizitza osoan zehar nekazarien eta egoera txarrean zeudenen alde egingo zuen, hauen duintasuna aldarrikatuz. Bere emaztearen laguntzaz ospe mundiala eman zioten *Gerra eta Bakea (1865-69)* edota *Anna Karenina (1876-77)* bezalako eleberriak sortu zituen. Bizitza profesionalaren gailurrean zegoela, krisi existentzial batean sartu zen idazlea. Bizitzaren zentzuaz galdetzen zen etengabe, heriotzaren mugan egon zelarik. Krisia gainditzea lortu zuen eta bere bigarren etapa literarioa hasi zuen, askoz ere filosofiko eta izpiritualagoa. *Aitormena (1882)* liburua edota *Berpiztea (1899)* izenekoa etapa honen funtsezko obrak ditugu. Lan hauetan aurreko bizitza errefusatzen du bizitzaren benetako zentsuaren bila. Garai honetako Tolstoiren obrak oso polemikoak izan ziren, 1901. urtean Errusiar Eliza Ortodoxoko Sinodo Santua idazlea eskumikatzera heldu zelarik. 1910. urtean etxetik alde egin zuen bakardadean bizitzeko asmoz, handik egun gutxira hil zen Astapovo-n.

5. REPIN ETA TOLSTOIREN ARTEKO HARREMANA

5.1. Sarrera

Bi maisu hauek garaikideak eta lagunak izan ziren. Hauen arteko harremana gorabeheratsua izan zen, baina batzen zizkieten arrazoiak urruntzen zizkietenak baino garrantzitsuagoak zirela argi dago. Idazlearen hitzetan, nahiz eta sarritan margolariarekin ados ez egon, ez zegoen Repin bezain argi eta bikainki nekazarien bizitza irudikatzen zuen besterik²³. Ilyak ere izugarri miresten zuen Tolstoi eta *Gerra eta Bakea (1869)* eleberria “*bizitzarako liburu garrantzitsua*” bezala definitu zuen²⁴. Anton Chekhov idazle eta antzerkigileak ere, pintorea, Tolstoi eta Piotr Tchaikovsky maisuen parean jarri zuen²⁵. Beraz argi dago, bai bata eta bai bestea, pinturan eta literaturan, Errusiako errealismoaren ezinbesteko ordezkariak ditugula.

²² WAEGEMANS, E. *Op. cit.* 230.orr.

²³ JACKSON, D. *Op. cit.* 141.orr.

²⁴ KRÉSOVA, N. (Ed.), *Lev Tolstói en el mundo contemporáneo*, Granada, Comares, 2011, 53.orr.

²⁵ JACKSON, D. *Op. cit.* 11.orr.

Esan bezala, errealismoan gizakia, nekazaria edota herritarra da jorratzen den gai nagusia. Hauen eguneroko kezka, tristurak, poztasunak, ospakizunak, bizitza bera azken finean gai nagusi bilakatuko da. Tolstoiren hitzetan oinarrituz, Aritz Gorrotxategi idazleak zera esaten digu: *“Izan ere, artea zerbait bada, sentimendu baten adierazpena da, eta sentimendu bat ez da esplikatzen bizi egiten da. Ikusle edota entzuleak egileak bizi izan dituen sentimendu berberekin kutsatzen diren une beretik, arteaz hitz egin dezakegu”*²⁶. Tolstoirentzat artea gizaki guztientzat eskuragarria eta erabilgarria izan behar da. Repinen obrek ere bat egiten dute pentsamolde honekin, errealismo zuzen eta hain benetako horren isla baitira. *Zer da artea? (1897)* izenburua daraman idatzian Tolstoik hurrengo dio: *“Hortaz, etorkizunean, perfekzioaren ideala ez da izango gutxi batzuentzat ulergarri den sentimendu baten eksklusibotasuna, baizik eta, aitzitik, sentimendu baten unibertsaltasuna. Eta formari dagokionez, ez da izango astuntasunik, iluntasunik edo konplexutasunik, orain dagoen bezala, alderantziz baizik, laburtasuna, argitasuna eta erraztasuna”*²⁷. Aipaturiko idatzi hau artearen gaineko hausnarketa, gogoeta eta iritziak biltzen dituen saiakera bat dugu eta jada arte sozial baten beharizanaren gaineko aldarrikapen sutua egiten du idazleak. Bertan artea gizakion ekintzekin loturik egon behar dela esaten digu eta honek ez duela inolaz ere edertasuna bilatu behar baizik eta justizia²⁸.

Jarraian, Repinen margolan batzuk oinarri harturik, errusiar errealismoaren ezaugarri nagusienak landuko dira, Tolstoiren idatziekin harremana dutenak hain zuzen ere. Hiru gai nagusi jorratuko dira. Batetik nekazari eta langileen gaiak, ohikoenak izan zirenak; bestetik erlijiotasunaren gaia eta hirugarren damuaren eta barkamenaren gaia. Repinek eta Tolstoiek egindako lanen inguruko analisiak, konparaketak eta ondorioak plazaratuko dira etengabe. Azkenik, margolariak idazleari eginiko erretratu batzuk aurkeztuko dira, bi hauen arteko harremana eta lotura horren adierazle esanguratsua baitira. Erretratu hauek idazlearen arima ikusten utziko digute.

²⁶ TOLSTOI, L. *Zer da artea?*, Donostia, meettok, 2012, 28.orr.

²⁷ TOLSTOI, L. *Zer da...* *Op.cit.* 121.orr.

²⁸ TOLSTOI, L. *¿Qué es el arte?*, Barcelona, Mascarón, 1982. 12.orr.

5.2. Nekazari eta langileen gaiak

Dudarik gabe, errealismo errusiarraren helburu nagusienetakoa subjektu moderno, garaikide eta nazionala lantzea izan zen. Esan bezala, nekazari eta langileek biztanleriaren gehiengo zabalena osatzen zuten, beraz orain beraiek izango ziren protagonistak. Hau kontuan izanik, Repinek konpromiso handiz landu zituen nekazariak eta langileak. Ilyari *Volgako ontzi garraiolariak (1870-73)* (2.irudia) lanak emango zion benetako ospe nazional eta baita internazionala ere. Obra hau errusiar pintura errealistaren ikur nagusienetako bat bilakatu zen, momentu hartatik aurrera “*Margolaritzaren Tolstoi*” deitua izan zelarik²⁹. Artista akademiatik irtendakoa eginiko lehenengo margolana dugu pintura monumental hau, Kramskoi-ek garaiko errusiar artearen jomugatzat joko zuen eta Fiodor Dostoyevsky idazleak edota Vladimir Stasov arte kritikariak ere aho batez goraiatu zuten³⁰. Gaiaren krudeltasuna agerian geratzen den arren, aldi berean pertsonaien benetakotasuna nabarmentzen da, esperantza ez baitute galdu. Injustizia autokratikoaren gaineko salaketa eta nekazari indigenen adoreari egindako kantu bat dugu pintura hau. Edukia politikoa baino, etikoa dela azpimarratu behar dugu. Tolstoiren pentsamenduarekin bat datorren obra dugu, non orden sozial desberdinen arteko tentsioak agerian geratzen diren. Idazlearen nekazarien aldeko borroka ezaguna da, *Gure garaiko esklabutza (1900)* edota *Langileriari (1902)* izeneko obrak dira honen erakusle adibidez³¹.



2. Irudia. *Volgako ontzi garraiolariak (1870-73)*

²⁹ BARTLETT, R. *Tolstoy: A russian life*, Boston, Houghton Mifflin Harcourt, 2011, 298.orr.

³⁰ STERNIN, G. *Ilya Repin*, Bournemouth (UK), Parstone, 1996, 18.orr.

³¹ BLANCH, A. *Op.cit.* 19.orr.

Garraiolarien margolan hau egiteko ideia, 1868an Savitski pintore errealistarekin Nevako erreka ertzerara, San Petesburgoko kanpoaldera, egindako bidaia batetik etorri zitzaion Repini. Bertan paseatzen zebiltzala, oporraldian egun pasa zegoen jende alaiak ikusi zuten eta hauen pare parean ontzi bat ahalegin handiz garraiatzen ari ziren gizon nekatu batzuk. Kontraste honek inpresio bizia eta benetako atsekabea sortu zion margolariari. Errusiar gizartearen egoeraren erakusle ziren bi talde hauek, Repinek bere margolanen bidez ez ezik, Tolstoiek ere behin eta berriro bere idatzien bidez salatuko zuen errealitate krudel hori. Hasiera batean eginiko zirriborroetan, pertsonaia hauek gizakiak baino animaliak ziruditen. Ahalik eta errealmorik biziena lortzeko, Repin Volgako itsasertzerara joan zen, gizon hauen bizimodua gertutik ezagutzeko. Esperientzia honi esker, artistak benetako pertsona gisa ezagutu zituen garraiolariak, beren bertute, indar, jakituria eta edertasunarekin³².

Obra osatzen duten hamaika pertsonaiak Errusiaren metafora dira, bizitza errealeko pertsonak dira, denak desberdinak eta aldi berean antzekotasunez josiak. Gizon hauen eta oro har langile guztien indar izpirituala erakutsi nahi digu margolariak, lan gogorrak ere apurtu ezin duen gizakion barne indar hori hain zuzen ere³³. Paradoxikoki obrak erakusten duena errusiar gehiengoaren egoera latza eta gizartean zeuden desberdintasunak izan arren, obra Alejandro II.aren semeak, Vladimir Alexandrovich Duke Handiak, erosi zuen. Esan bezala obrak gizarte konkretu eta egoera konkretu bati erreferentzia egiten dion arren, gaia erabat unibertsala dugu, klase boteretsuen zapalkuntza herri xumearekiko.

Langileekiko hurbiltasun hau Tolstoirengan ere guztiz ezaguna dugu. Tolstoik Vasily Kirillovich Suyutaev izeneko nekazari bat ezagutu zuen 1881.urtean eta honek pobreekiko karitatearen baliorik eza irakatsi zion. Suyutaev sekta bat sortu zuen Testamentu Berriko Kristoren lagun hurkoarekiko maitasunean oinarriturik³⁴ eta Tolstoi txunditurik utzi zuen. Nekazari honek Tolstoiri irakatsi zion benetako karitatea nekazariekin ondoz ondo lan egitean zetzala, batak bestearengandik ikasteko aukerarekin. Betidanik Tolstoiren nekazarietako lotura handia zen arren, Yasnaya Polianako eskola adibide, momentu hartatik aurrera nekazari bat bailitzan hasiko zen

³²SARABIANOV, D. *Op. cit.* 138.orr.

³³ STERNIN, G. *Op.cit.* 16.orr.

³⁴ KNOWLES, R. *Political Economy from Bellow: Economic Thought in Communitarian Anarchism 1840-1914*, New York, Routledge, 2004. 275-276.orr.

bizitzen³⁵. Repinek egindako *Lev Tolstoi bere estudioan (1891)* (3.irudia) izeneko obrak nekazari bihurturiko idazlearen bizitza apal eta xumea begi bistan usten du. Tolstoirentzat Suyutaeven irakaskuntza hau Kristorengandik askoz hurbilago zegoen eliza baino. Pertsonaia hau benetan garrantzitsua izan zen idazlearen bizitzan, beren Moskuko etxean sarritan egon zelarik eta Repini eskatuko zion gainera nekazari honen erretratu egiteko. *Sektarioa* izeneko koadro hau ez da oso ezaguna eta datatu gabe dago, baina Tretiakov galeriak eskuratu zuela badakigu³⁶. Urte batzuk beranduago, 1893.urtean Tolstoiek *Jainkoaren Erreinua zuengan aurkitzen da (1894)* entsegua argitaratu zuen eta bertan beti neba-arreba bezala maitatzea agintzen duen mandamendu nagusiena aldarrikatzen du, Suyutaevек egin ohi zuen legez. Hau lortzeko, nagusiek mirabeekiko duten harreman injustu hori desagertzea ezinbestekoa dela esaten digu idazleak.



3. Irudia. *Lev Tolstoi bere estudioan(1891)*

Beraz, adibide hauen bidez argi ikusten dugu, bai Repinek eta baita Tolstoiek ere, nekazariengana hurbiltzeko beharrian hori sentitzen zutela, errealismoaren bihotzean gizaki arrunta baitago. Bi egileek bai beren margolanetarako eta idatzietarako langileekin eskuz eskuko esperientziak bizi zituzten. Hauek bereziki, nekazarien gaia errealismo osoz baina aldi berean esperantzaz jorratu zuten beti. Repinek, betiere

³⁵ LAURENT, J. (Ed.), *Henry George's Legacy in Economic Thought*, Northampton (Ma, USA), Edward Elgar Publishing, 2005. 61.orr

³⁶EMERSON, C. eta MORSON, G. (ed.), *Rethinking Bakhtin: Extensions and Challenges*, Evaston (Illinois), Northwestern University Press, 1989. 298.orr

ezkortasuna, derrotismoa edota irudikapen bortitzegiak saihesten zituen herritarrei dagokienean, gainontzeko artista ibiltariak ez bezala, pertsonaiei ahalik eta duintasun handiena emateko helburuarekin. Pertsona askeak izateko Tolstoiek nekazarien bizitza egitea gomendatzen du, neurritasunez bizitz eta baraualdia eginez. Nekazarien gainean idazlearen *Berpiztea* (1899) obrako 13.kapituluan ondorengoa irakur daiteke: “*Beraiek bueltatu zizkidaten nire fedearen oinarriak*”³⁷.

Iluntzeko jaia (1881) (4.irudia) deituriko Repinen margolan batean Ukrainiako jai tipiko bat irudikatzen da landa giroan. Obra hau izugarri gustatu zitzaion Tolstoiri nekazarien bizitza modu argitsu eta positiboan lantzea posible zela erakutsi baitzuen pintoreak³⁸.



4. Irudia. *Iluntzeko jaia* (1881)

Idazleak artistaren Moskuko estudioan ikusi zuen obra eta Repin asko harritu zen lan hau goraiatu zuenean, bertan zituen obra handien parean askoz ere lan umilagoa baitzen. Eszenak neguko gau hotz eta luzean, baserri umil, baina gozo baten barnealdean egindako nekazari jai bat erakusten digu. Dantzaz eta musikaz gozaten ari den jendea ikus dezakegu. Nekazal munduaren bizitasun eta baikortasunaren isla dugu

³⁷ BLANCH, A. *Op.cit.* 25.orr.

³⁸ PRYMACK, T. M. “A painter from Ukraine: Ilya Repin”. *Canadian Slavonic Papers: Revue Canadienne des Slavistes*, 55.bol. 1-2.zk, (2016): 19-43.orr.

obra. Hau lantzeko, artistak koloreak bizkortasunez aplikatzen ditu, pintzelkadak nabariak dira eta erliebea dago. Kolore gama nahiko eskasa da, tonu marroiak nagusitzen dira gaiaren umiltasun horrekin bat eginez. Dantzan ari diren pertsonaiek ikuslea eszenak sartzan dute, batez ere lepoz makurturik dagoenak. Obraren sinpletasunean eta erakutsi nahi den nekazarien bizitzaren zintzotasun horretan aurkitzen dugu Tosltoien pentsamenduarekin bat egiten duen izpiritua hain zuzen ere³⁹. *Gerra eta Bakearen* egilearen hitzetan: “*Zoriontasunaren sekretua ez da beti norberak nahi duena egitea, egiten den hori beti maitatzea baizik*”⁴⁰. Esaldi honek, Tolstoiek nekazarien bizitzarekiko sentitzen zuena argi eta garbi azaltzen digu, hau da, betiere duintasuna aurretik, nekazarien bizitza umila, sinplea eta bizitza modurik zintzoena dela pentsatzen zuen. Ondasun material gutxirekin zoriontsu bizitzea lortzen zuten horiek erabat eredugarriak ziren idazlearentzat. Tolstoiren ustetan, arteak, langile eta nekazariei bizitzako egun gogorak eramangarriago egiteko balio behar zuen, arteak ametsaren pareko atsedena eskaini behar ziela uste zuen⁴¹. Repinen margolan honek artistikoki maisutasun handiegirik erakusten ez badu ere, garaiko Errusia landa guneko eszena atseginenetako bat dugu.

Garaiko gizarteko jendearen beste aurpegi bat ere erakutsi zigun margolariak, gaixotasun benereoa hain zuzen ere. 1888ko liburu batetarako, Repinek sifilisaz jotako emakume gaixo bat irudikatu zuen sudur barik. Tolstoik hau ikusi zuenean erabat harriturik geratu zen irudiaren errealismoa zela eta. Momentu hartan idazlea moralaren eta gaizkiaren gaineko idatzi batzuk sortzen ari zen eta Repini eskatuko zion edatearen inguruko hiru irudi egiteko. Hauek izugarriak eta boteretsuak izatea nahi zuen idazleak, gizakiengan kontzientzia sortzea baitzen helburu nagusia⁴². *Aita Mozkorra (1888)* (5.irudia) izeneko lapitzez eginiko marrazkia honen adibide dugu. Gizon argal, mozkor eta gaixoa etxera bueltatzen den momentua irudikatzen da, familia guztia izuz beterik dagoen bitartean. Zirriborro bat dirudien arren, oso adierazkorra eta esanguratsua da irudia, alkoholaren gaixotasunak eragiten dituen kalte bikoitzak, bai zalearenak eta baita familiarenak, begi bistan usten baititu. Tolstoiek *Aitormena (1882)* izeneko bere liburuan aurreko bizitza errefusatzen du eta bizimodu berri baten bila hasten da,


³⁹ JACKSON, D. *Op. cit.* 128.orr.

⁴⁰ BERNAL, R. M. eta MÁRQUEZ, A.C. *Psicología de la publicidad*, México, Universidad Autónoma de Nuevo León, 1997.

⁴¹ TOLSTOI, L. *¿Qué es...? Op. cit.* 11.orr.

⁴² JACKSON, D. *Op. cit.* 139.orr.

bizitzaren esanahiaren bila hain zuzen ere, lehenago bizitako bide ez moralak eta egiatik urruntzen gaituztenak ukatuz.



5.Irudia. *Aita mozkorra* (1888)

5.3. Gai erlijiosoak

Ilyak 1883an *Kursk-eko probintziako prozesio erlijiosoa* (6.irudia) izeneko obra bukatu zuen, hiru urtetako lan gogorraren ondoren. Margolan honek Repinen genero pinturaren gailurra markatu zuen, artistaren goi maila eta izandako garapena agerian usten zituelarik⁴³.

Errusian ohitura lez legez, urtero Kurskeko katedraleko ikonorik preziatuenak Korennaya ermitara garraiatzen ziren 32km-ko bidaia erlijiosoan oinez. Hainbat eta hainbat artistek landutako ohiko gaia izan zen hau, baina Repin beste guztiengandik bereizi zen gaia oso modu berezian landuz. Hiru urteko lan prozesu luzean, aldaketa asko egin zituen margolariak eta uste denez, Tolstoiren aholkuak jarraituz sortu zuen gure eskuetara heldu zaigun azken bertsio hau⁴⁴.

⁴³ SARABIANOV, D. *Op.cit.* 141.orr.

⁴⁴ BARTLETT, R. *Op. cit.* 298.orr.



6. Irudia. Kursk-eko probintziako prozesio erlijiosoa (1883)

Ohikoa zen nekazari jai herrikoiak irudikatzea, baina Repinek alde folklorikoa alde batera utzi eta espektakulo eta batasun erlijiosoaren orde, bere garaiko gizarteko desberdintasun sozialak irudikatu zituen. Dakigunez, Tolstoiren bizitzako krisialdi existentziala zela eta, idazlearentzat Eliza Ortodoxoa herriarengandik urrun zegoen, boteretsuen ondoan jarriz eta dogmaren alde eginez. Ondorioz, errusiar eliza Jesusen ebanjeliotik erabat urrundu zela pentsatzen zuen idazleak. Literatoaren hitzetan: *“Argitasunez ikusteko beharrezkoa da sineskeria kentzea”*⁴⁵. Tolstoirentzat egiaren bilaketa izan behar zen helbururik nagusia. Hau zela eta, Repinekin hitz egin zuen obraren gainean eta transmititu nahi zuenaren inguruko hausnarketa egitera gonbidatu zuen idazleak. Tolstoiren hitzetan *“Herri xumearen fedea, benetako ezagutza bat da, bakean bizitzen laguntzen diena hain zuzen ere”*⁴⁶. Nekazari eta herritarren fedea, Jesusen ebanjelioarekin, honen irakatsiekin lotu zuen estuki eta Eliza Ortodoxoak honekin zerikusi gutxi zuela jabetuko zen. Honela, badirudi idazlearen hitzek artistarengan benetako eragina izan zutela, margolanaren azken bertsioa guztiz esanguratsua izan baitzen, aldi berean ospe izugarria eta kritika latzak jasoz. Repinen obra Errusiako kasta sistemaren aurkako eraso zuzena izan zen, gizartearen sufrimendua eta herritarrek bizi zuten egoera tamalgarria begi bistan utzi zituelarik. Margolana

⁴⁵ TOLSTOI, L. *Zer... Op.cit.* 25.orr.

⁴⁶ BLANCH, A. *Op. cit.* 12.orr.

1883.urtean erakutsi zen lehenengo aldiz Erakusketa Ibiltarien baitan eta aste betean 4.000 bisitari jaso zituen beren eduki probokatzaileria zela eta. Repinek bere obraren errealismoa defendatu zuen sutsu eta ez zuen eraldaketarik onartu, egia erakutsi nahi baitzuen. Obrak ez du gertakizun zehatz bat kontatzen, ezta bertara abiatu zirenen erretraturik egiten aurreko autoreek egin zuten legez. Kasu honetan, errusiar gizartea bera irudikatzen digu. Pertsonaia gaixoak, zaharrak, itsusiak, haurrak, mozkorrak, biolentzia eta abar erakusten dizkigu margolariak, baina momentu oro duintasun eta humanitate izugarriarekin. Gizarte estamentuen desberdintasuna argi eta garbi ikusten da, honen adierazle dira jipoitua izaten ari den haur herrena edota urre kolorez jantzita doan apaiza. Gai erlijiosoa aitzakia moduan hartu zuen pintoreak gizarte garaikidea irudikatzeko, gizabanakoaren eta taldearen psikologiaren erakusle dugu obra⁴⁷. Obra oso gogor kritikatu izan zen alde ugariatik, Repinen nibel artistikoa pobrea zela esan zuten batzuk pertsonaien itsusitasuna zela eta. Egoera honetan, Tolstoi izan zen margolana defendatu eta goraiatu zuen bakarrenetako bat⁴⁸, bere fedearrekin, erlijiotasunarekin eta ideialekin bat baitzeten. Urte batzuk beranduago, *Berpiztea (1899)* izeneko bere nobelan ideia guzti hauek agerian utziko ditu. Berpizte erlijiosoaz ez ezik, berpizte politikoaz hitz egiten digu obran, justizia aldarrikatzen du epaimahaiekiko, klase gorenaren zapalkuntzarekiko, elizaren boterearekiko eta antzeko gaiekiko salaketa sozial eta politikoak oso agerikoak dira liburuan. Tolstoiek idatziriko eleberri honetan, Repinen koadroan bezala kontraste nabariak agertzen dira behin eta berriz, hala nola, aberatsak eta txiroak; askeak eta ez askeak; argitasuna eta iluntasuna, naturala eta artifiziala; indar izpirituala eta indar fisikoa; norbanakoa eta instituzioa⁴⁹. Lehenago aipaturiko idazlearen *Jainkoaren Erreinua zuengan aurkitzen da (1894)* izeneko idatzian, Elizak Jesukristoren benetako ikasketak kutsatu dituela azaltzen du Tolstoiek, bateraezinak diren bi kontzeptu nahastuz, hala nola, erlijioa eta biolentzia. Argi dago beraz, idazlearen pentsamendua kasu honetan, Repinek margolanean erakutsi nahi digun horrekin bat egiten duela biolentzia eta erlijioa ageri agerian geratzen baitira eta nola ez klase hierarkizazioa nabaria da. Obra honen bidez, pintoreak Errealismo kritikoa sozialari atak ireki zizkion, zentsurarekin beti arriskatu zen artista bat baitugu.

⁴⁷ SARABIANOV, D. *Op. cit.* 140-141.orr.

⁴⁸ JACKSON, D. *Op. cit.* 134.orr.

⁴⁹ CORNWELL, N. (ed.), *Op. cit.* 1998. 823.orr.

5.4. Damua eta barkamenaren gaia

1881ko martxoaren 1ean *Narodnaya Volia*⁵⁰ talde iraultzaileak Alexander II Tsarra erail zuen. Honen ondorioz, hiltzaileak eta taldeko partaide batzuk exekutatuak izan ziren publikoki. Gertakizun hauetatik abiatuak, Repinek bere hurrengo obra egiteko ideia hartu zuen. Pasarte garaikide honek 1580.urtean gertaturiko beste bat ekarri zion gogora artistari, Ivan IV Tsarrak haserrealdi batean bere semea kolpatu eta hil zueneko hain zuzen ere. Honela, gai historiko batean oinarrituta, *Ivan Harrigarria eta bere semea (1884-1885)* (7.irudia) izeneko obra egin zuen margolariak. Repinek honela deskribatu zuen heriotzez beteriko gertakizun hauen ondorioz sentitu zuena: “*Nire sentsibilitatea momentuko laztura guztiez beteta dago*”⁵¹.



7. Irudia. *Ivan Harrigarria eta bere semea (1884-85)*

Garaikide zuen egoera politiko latz hartan ikusitako biolentziak benetan atsekabeturik utzi zuen Repin eta ondorioz lan honetan biolentzia agerikoa da; baina hau baino, damuaren eta barkamenaren ideia plazaratu nahi izan zituen autoreak. Tolstoiek Ivan Harrigariaren margolana ikustean agerpen filosofiko bat izan zuen,

⁵⁰ *Narodnaia Volia*: “Herriaren borondatea” 1880.hamarkada hasieran sorturiko talde nihilista eta terrorista izan zen. Honen helburu nagusia subertsioa eta boterea herriari bueltatzea ziren.

⁵¹ ALLENOV, M. et al. *Op. cit.* 522.orr

semeak aitarekiko izandako barkamen horri lotuta hain zuzen ere⁵². Ezagunak dira literatoaren biolentziaren aurkako manifestaldiak eta hitzak. Biolentziak guztiontzako sufrikarioa besterik ekartzen ez duenaren ideia hori, Tolstoiek aho betez defenditu zuen eta koadro honetan hori da Repinek erakutsi nahi diguna hain zuzen ere. Tolstoiren ustetan sentimendu gorenak adierazten dituzten obrak, jende guztiarentzat ulergarriak dira⁵³. Idazlearen *Berpiztea* (1899) izeneko liburu ospetsuan, bekatuan bizi zen printze errusiar baten konbertsioa kontatzen da. Tribunal baten epaile lanak egin behar zituen gizon honek eta akusatua urte batzuk lehenago eraso eta abandonatu zuen neska zen. Epaimahaiak emakumea injustuki salatu zuen bizi osokorako zigor kartzelaz Siberian eta egoera hau ikusirik gizona atsekabe eta damuz beterik geratu zen. Neskaren barkamena lortzeko, printzea kartzelara joan zen, non neskak barkamena onartuko zion. Momentu horretatik aurrera, printzeak beren ondasun material guztiak ukatu eta penitentzia egingo zuen Ebanjelioa jarraituz⁵⁴. Lev Tolstoien istorio hau aztergai dugun koadroaren gaiarekin estuki lotzen da, damua eta barkamena izugarri interesatuko zaizkio idazleari gizakiaren askatasuna lortze horretan.

Margolanaren erdi erdian Tsarra belaunikaturik eta honek eraildako semea agertzen zaigu bere besoetan. Aitak egin berri duenaren ondoren izua erakusten digu, bere onetik aterata dago, perturbazio egoeran dagoen pertsona baten aurpegiarekin begiratzen digu. Semearengan aldiz, baretasuna eta lasaitasuna dira nagusi. Kontraste bizia sortzen dute bi pertsonaiek. Honetaz aparte, erabilitako kolore gorrixka eta beroak eszena girotzeko ezinbestekoak izango dira, odolaren eta heriotzaren koloreak ditugu nagusi. Argia bi protagonistengan zentratzen da, hor dago drama, gainontzeko detaileak bigarren mailan, nahiko ilunpetan geratzen direlarik. Karga emozional eta psikologikotik aparte beraz, estetikoki ere oso lan fina dugu hau.

Ilyarekin sarri gertatzen zen legez, obra honek kritika latzak eta laudorio izugarriak jaso zituen aldi berean. Aleksei Suvorin kazetariak Rembrandt-ekin parekatu zuen gure artista, pertsonaien banaketa psikologikoa maisuki lantzearen eta Kramskoi, Shiskin edota Yaroshenko artistek ere indartsu goraiatu zuten lana. Pinturaren aurrean konortea galtzen zutenen informeak ere agertu dira eta 1885ko erakusketa ibiltarian jasotako jendetza dela eta, poliziak parte hartu zuela esan ohi da. Gobernua eta

⁵² JACKSON, D. *Op.cit.* 86.orr.

⁵³ TOLSTOI, L. Zer da... *Op.cit.* 28.orr.

⁵⁴ CORNWELL, N. (ed.), *Op.cit.* 822-823.orr.

Akademia erabat kontra agertu ziren, Erregea hiltzaile kriminal bat bailitzan erakustez salatzzen zuten Repin, zentsura legeak aplikatu zitzaizkiolarik.

Repinek planteatzen zuen analogia oso interesgarria eta aldi berean guztiz probokatzailea izan zen, autokraziaren indiferentziak historian zehar sortutako ondorioak agerian utzi baitzituen. Guzti honen gainetik ordea, autoreak biolentziaren aurkako salaketa humanitarioa egin nahi izan zuen obraren bidez, egia den arren obrak sortzen duen inpaktu psikologikoa oso bortitza dela. Hala nola, eszena krudel baten bidez, bortizkeriaren gaineko hausnarketa eskatzen digu autoreak. Damuaren eta barkamenaren gai hau garai guztietarako aproposa eta unibertsala dugu. Gertaera historiko baten aurrean gauden arren, gizakion izaeraren gaineko hausnarketa bat dugu. Repinek nahasketa emozional eta filosofiko bat planteatzen digu. Artistarentzat, garaian bizitzen ari zen egoeraren gaineko askatasun emozional baten emaitza izan zen obra. Tolstoik berriz, bakearen eta barkamen kristauaren gaineko aldarrikapen sutsu bat bezala ulertu zuen margolana⁵⁵. 1910.urtean idazleak Mahatma Gandhiri bidalitako gutun batean, biolentzia arbuiatu zuen⁵⁶. Maitasuna lege bakarra dela zihoen errusiarrak eta hau biolentziarekin bateraezina zela. Gutun honetan erailketa Biblian eta kristoren irakaskuntzetan erabat kondenatzen zela dio gainera, lagun hurkoari gaizki egitea onartezina baita. Tolstoi neokristau edota anarkista bakezale bezala definitua izan da sarritan. Lehenago aipaturiko *Jainkoaren erreinua zuengan aurkitzen da (1894)* idatzian ere, autoreak gaizkiari aurre egiteko biolentzia gabeko erresistentzia bultzatzen du. Oinarrian margolana tratatu etiko bat dela esan genezake, Ivan Harrigarria, berak sorturiko biolentziaren biktima bilakatuko baita. Ondorioz, aldi berean errefusamendua eta gupida eragiten duen lana dugu. Etikaren muga igarotzean gertatzen den horrek, gure ingurukoak ez ezik, gu geu ere preso egingo gaituela adierazten digun maisulan paregabea dugu hau Tolstoiren idatziekin batera noski.

⁵⁵ JACKSON, D. *Op. cit.* 86.orr

⁵⁶ TOLSTOI, L. *Cartas. Op. cit.* 266-270.orr

5.5. Tolstoiren erretratuak

Aztertzen ari garen bi maisu hauen artean hogeita hamar urteko adiskidetasuna egon zen. Repin, idazlearen erretratu serierik esanguratsuena sortu duen artista dugu gainera. Margolariak literatoaren erretratu serieak, Tolstoiren lanetarako marrazkiak eta eskultura bat ere egin zituen. Idazlearen egunerokoetan sarritan irakur genezake Ilya Repin margolariaren izena eta honekin bizitako anekdota eta gertakizun desberdinak kontatzen dira, hala nola, Repin Yasnaya Polianara joan zeneko bisitetako batez hitz egiten digu eta bertan egun batzuk igaro zituela dio idazleak bere erretratu margotuak eta busto eskultura bat egiten⁵⁷.

Margolariak garaiko errusiar izpirituaren adierazle bezala ikusten zuen Tolstoi, honen botere izpiritual berezi hori ondo harrapatu zuelarik beren errepresentazioetan⁵⁸. Kutsu jainkotiarreko pertsonaia bat, baina horren gainetik pertsona arrunt bezala irudikatzea interesatzen zitzaion margolariari. Idazlearen herriarenganako eta bereziki nekazarienganako hurbiltasun hori ikusgarri egin nahi izan zuen Repinek. Letren gizona goldatzen, belarra mozten eta antzeko landa lanetan irudikatu zuen pintoreak. Idazlearen alde filosofikoa ere margotu zuen Repinek.



8. Irudia. *Lev Tolstoi goldatzen*(1887)

⁵⁷ TOLSTOI, L. *Diarios. Op. cit.* 392.orr

⁵⁸ STERNIN, G. *Op. cit.* 33.orr

Oso berezia da *Lev Tolstoi goldatzen (1887)* (8.irudia) margolana. Eguzki kiskalgarri baten pean aristokrata nekazariz jantzita goldatzen azaltzen da. Repinek muskuluz beteriko gorputz handi eta indartsua erakusten digu. Paradoxa berezia azaleratzen zaigu erretratatuaren eta artistaren artean, biek jaiotzez tokatu zitzairen bizitzatik ihes egin nahi baitzuten⁵⁹. Aristokrata lurra lantzen azaltzen zaigun bitartean, nekazaria ospe handidun margolari kosmopolita bilakatu zen. *Tolstoi basoan (1891)* (9.irudia) lana idazlearen bizitza ez ortodoxoaren isla dugu. Honetan, baso bateko zuhaizpean, zuriz jantzita, lurrean etzanda irakurtzen agertzen zaigu Tolstoi. Erakargarritasun estetikorik gabea dugu, argi-ilunekin jolasten du artistak, inpresionismoa hurbiltzen da, non idazleak eta naturak bat egiten duten.



9.Irudia. *Tolstoi Basoan (1891)*



10 .Irudia. *Lev Tolstoi oinutsik edo otoitzean (1901)*

⁵⁹ JACKSON, D. *Op. cit.* 191.orr.

Dudarik gabe, *Lev Tolstoi oinutsik edota otoitzean (1901)* (10.irudia) izeneko margolana serie guztitik interesgarrienetakoa dugu. Bertikalean jarritako laukizuzen baten forma du mihiseak eta bertan idazlea agertzen zaigu zutik Erdi Aroko santu edota Testamentu Zaharreko profeta bat bailitzan. Obra *Peredvizhniki*-en erakusketari esker, garaian aldaketa nahia zutenen aldekoen benetako ikur filosofikoa bilakatu zen. Ortozik agertzen da idazlea, Repinek honen bizitzeko modua eta ideologia plazaratu nahi baitzituen. Koadroa erakusketan jarri eta aste bete beranduago 1901.urtean Eliza Ortodoxoak Tolstoi eskumikatu zuen, horrela obra ikasleria manifestaldien erdigune bilakatu zen San Petesburgon. Erakusketan idazlearen aldeko diskurtsoak eman ohi ziren eta margolana lore sortaz inguratua izan zen. Ondorioz, erakusketatik kendua izan zen eta debekatu egin zuten beste edonon erakustea ere.

Laburbilduz esan, Lev Tolstoiren irudia Repinek erakutsi nahi zituen ideiak azaleratzeko ezin hobea izan zela. Idazlearen pertsonalitate gogorrek, gorpuzkera sendoak eta izpiritualtasun naturalak, erretratatua pertsonaia indartsu eta aldi berean poetiko batean bilakatzen dute⁶⁰. Filosofo edota profeta baten pareko irudikatu nahi izan zuen Repinek Tolstoi. Nekazari lanetan edota bizimodu umilean erretratatzan zuenean ere idazleak bizitzan transmititzen zuen magia eta pertsonalitate kementsu hori era bikainean irudikatu zituen margolariak. Legenda munduko pertsonai baten legez eta aldi berean bizitza errealeko gizon arrunt baten moduan erakutsi nahi izan zigun Repinek idazlea, hain zuzen ere, hori baitzen Tolstoi, gizon espirituala eta aldi berean erabat lurtarra.

⁶⁰ STERNIN. G. *Op. cit.* 55-58.orr

6. ONDORIOAK

Egia da aspaldidanik “*artea artearengatik*” onartua izan dela, ezin da ukatu honen balio estetikoa bere zentsurik zabalenean eta erabat ados nago adierazpenarekin. Dena dela, arlo askotan mundu aurreratu batean bizi garen arren, badirudi existentziaren arlorik garrantzitsuenetan ez dugula ezer askorik ikasi. Munduan bizi ditugun gerra, gosete, bizi baldintza onartezin eta gainerako guztiek artearen balio sozialaren beharra areagotzen dutelakoan nago. Ildo honi jarraituz, interesgarria iruditu zait historian estreinakoz arte justuago eta sozialago baten beharra ikusi zutenengana abiatzea eta honela heldu nintzen Errusiara. Tolstoi izango da hain zuzen ere *Zer da artea?(1897)* izeneko saiakerarekin, artearen izaera kolokan jarriko duena, honen helburu soziala aldarrikatuz. Balore errealistak biltzen dituen idatzia dugu hau. Honela, gure idazlearekin bat datorren eta estuki loturik dagoen Repin margolariak, literaturan landutako gaiak irudi bilakatuko ditu.

Nire lanaren helburu nagusia, gizartea aldatzeko eta honen gainean hausnartzeko arteak duen indar hori erakustea izan da. XIX. mende erdialdetik aurrera Errusian, biztanleria guztiari zuzenduriko arte bat egiten hasi ziren, helburua nagusia didaktikoa zen beraz. Egunerokotasuna, egia, errealitatea irudikatzea zen helburu nagusia eta ez akademiak bultatzen zituen ohiko gai hutsal eta herriarentzat ulertezinak. Hau gutxi balitz, Erakusketa Ibiltarien Taldearekin artea galeria eta museoetatik kalera irten zen eta Errusiako landa-gune zabalean galdurik zegoen herritxoan bizi zen jendeak ere lehen aldiz eskuragarri izan zuen artea.

Agerian geratu den moduan, Errusiako errealismoaren bi zutabe garrantzitsu ditugu bai Repin eta baita Tolstoi ere, XIX. mendearen erdialdean testuinguru guztiz aproposa baitzegoen honen gauzapenerako. Biztanleriaren gehiengoaren bizi egoera latzek herriaren askatasun nahia areagotu zuten. Errealismoaren ezaugarri nagusia herritarra, hau da, gizakia bera arlo guztien erdigune bilakatzea zen. Aztertu diren bi artisten obra batzuk oinarri hartuta, errealismoaren ezaugarri guztiak betetzen dituztela ikusi dugu. Bizitza errealeko gizakien arazoak azaltzen zaizkigu, hala nola, lan gogorraren baldintza latzak; nekazarien bizimoduaren zailtasun eta bertuteak; gizakiek pairatzen dituzten gaixotasunak; norbanakoaren kontzientziaren gaia; existentziaren gaineko planteamenduak; erlijiotasunaren inguruko uste edo sinesmenak eta antzekoak. Bi autoreen lanetan gizakia ahula eta era berean ausarta; txiroa eta era berean

zoriontsua; botereduna eta era berean bere burua kontrolatu ezin duena da. XIX. mendean jada arte sozial baten ideia aldarrikatzea oso aurrerakoia izan zen eta ondorioz, interesgarria iruditu zait egun bizi dugun gizarte ezegonkor honetan, jada bi mende lehenago ikusi zuten hori plazaratzea. Arte eder baten gainera justizia eta egia aldarrikatu zuten gure protagonistek. Bai pintorea eta baita idazlea ere, gizakien bizitzaz arduratzen ziren, giza sentisuekiko eta eskubideekiko sentiberatasun oso berezia erakutsiz. Gizakion arima erretratatu nahi izan zuten etengabe pintzelaren eta idazlumaren bitartez. Repinen eta Tolstoiren lanetako gizakia, egun XXI. mendean aurkitzen dugun bera da, testuinguru desberdin batetan bada ere, arazo berdinak jasaten dituena da. Nahiz eta bi autoreek garaiko Errusiaren egoeraren salaketa bat egiten duten, gai unibertsalak jorratzen dituzte, edonon eta edonori suertatu ahal zaizkion gai berberak azaleratzen dituzte eta hau oso baliagarria dela uste dut gizateriaren gainean hausnartzeko.

Aipatzekoa da Repin eta Tolstoiren artean noizbehinkako desberdintasun ideologikoak ere egon zirela, baina lan honen bidez agerian utzi nahi izan den moduan, batzen zizkieten elementuak askoz ere esanguratsuagoak dira. Jatorri oso ezberdinekoak ziren Repin eta Tolstoi. Lehenengoa jatorri umilekoa dugu eta txikitatik ezagututako bizitza horretatik ihes egin nahi eta lortu zuen bitartean, idazleak jatorri aristokratikoa zeukan eta bizimodu eroso hori alde batera utzi zuen nekazarien moduan bizitzeko. Repinek Tolstoirengandik zuen miresmena izugarria zen arren, ez zuen konpartitzen haren pentsamendu hertsia gai batzuekiko. Ikusi bezala Tolstoiek bere bizitzaren amaieran ondasun guztiak alde batera utzi eta nekazari gisa bizitzen hasi zen, umiltasun eta pobretasun osoan eta Repinek ez zuen horren beharrik ikusten. Ildo beretik jarraituz, Tolstoik bere bizitzaren bigarren etapatik aurrera eta *Zer da Artea?(1897)* lanean “*artearengatik*” adierazpena erabat errefusatu zuen eta honekin batera berak sorturiko eleberri famatuena eta baita Shakespeare, Baudelaire edota Beethovenen obrak gaitzetsi eta gogor kritikatu zituen. Tolstoik bere bigarren etapan, artearen balio praktikoa onartuko du soilik, artea pertsona guztientzat ulerkorra izan behar zela zioen eta edertasunaren existentzia ukatu zuen. Repin aldiz, ez zen azken baieztapen honen alde egongo. Nahiz eta margolariak artearen balio didaktikoa aldarrikatu, balio estetikoak ere oso garrantzitsuak zela uste zuen eta edertasuna existitzen zela uste zuen betiere egian oinarriturik bazegoen. Dena dela argi dago, bi autoreen lanen funtsa nagusia errealismoa izan zela, behin eta berriro, gizakia eta gizartea, bizitza bera, izan ziren bere obren

interesgune nagusienak. Bi autore hauen ekarpen eta baliorik nagusiena artearen funtzio sozialaren aldarrikapenean aurkitzen da. Garaikide zuten errealitatea lan tresna bilakatu zuten, helburu pedagogiko, etiko eta sozialak aurrera eramateko.

Egun bizi dugun mundu honi erreparatuz badirudi guk ezer gutxi egin dezakegula gauzak hobetzeko eta lan hau aitzaki harturik baieztapen hori alde batera utzi nahiko duke. Repinek eta Tolstoik herritarren balioan eta indarrean sinesten zuten eta garaiko eta egungo jende askoren pentsamoldean eragiten jarraitzen dute oraindik ere. Repinen margolan gehienak Erakusketa Ibiltarrietan ikusgarri izan ziren eta herritar ugari ikusi ahal izan zituzten, asko zorabiatu edota guztiz hunkiturik ateratzen zirelarik. Pintorea Errusiarrentzat pertsonaia nazional handienetako bat da eta honen adierazle Errusiar iraultzaz geroztik Ilya Repinen izena daraman Moskun kokatzen den Arte Institutu Akademiakoa. Tolstoiren kasuan eragin hori oraindik ere nabariagoa da, lurraldetasun eta denboraren muga guztiak gainditu dituen autorea baita. Honek mugimendu iraultzaileetan; giza eskubideen aldarrikapenaren aldeko mugimenduetan; bakearen aldeko hainbat pertsonaiengan tartean Mahatma Ghandi edota Martin Luther King eta baita pedagogian izan du eragina. Bai Repinek eta baita Tolstoiek ere, beren helburu nagusia neurri handi batean lortu egin zutela esan dezakegu, kontzientzia soziala sortu baitzuten hausnarketarako ateak zabalduz. Talde lana, lagun hurkoarekiko maitasuna, gizaki guztien eskubideen aldarrikapena eta antzeko baloreak aldarrikatu zituzten eta hau kontuan izatekoa da.

Ondorioz, errusiar historiak emandako bi pertsonaia erabat funtsezko eta interesgarriak ditugu bai Repin eta baita Tolstoi ere, bizi dugun mundu bidegabe honetan erabat aplikagarriak diren ikasgaiak eskaintzen baitizkigute. Bi autore hauek egin zuten legez, giza eskubideak eta giza duintasuna aldarrikatu beharko genuke guztiok, anestesia momentua eta beldurra alde batera utziz. Errealitatea ezta norberak bizi duena bakarrik, munduko herritar guztiok osatzen duguna da eta beraz, mundu justu eta hobe baten sorreran guztiok dugu egitekoa. Lev Nikoievich Tolstoi:

“Edozein arteren esentzia gizakiak batzea da. Senidetasuna, alegia. Ez badu hori bilatzen ez da benetako artea, denbora-pasa baizik”⁶¹.

⁶¹ TOLSTOI, L. *Zer da...* Op. cit. 28.orr.

7. BIBLIOGRAFIA

ALLENNOV, M. et al. “El arte de la segunda mitad del siglo XIX”. In *Summa Artis: Historia general del arte - Arte ruso*, Madrid, Espasa calpe, 1998. 44.vol. 460-522. orr.

BARTLETT, R. *Tolstoy: a Russian Life*, Boston, Houghton Mifflin Harcourt, 2011.

BERNAL, R. M. eta MÁRQUEZ, A.C. *Psicología de la publicidad*, México, Universidad Autónoma de Nuevo León, 1997.

BIENZOBAS, E. *Rusia en el siglo XIX*, Madrid, Akal, 1986.

BLANCH, A. *León Tolstói, un profeta político y evangélico*, Barcelona, Cristianisme i Justícia, 2013.

CORNWELL, N. (ed.), *Reference guide to Russian literature*, London, Fitzroy Deaborn, 1998.

EMERSON, C. eta MORSON, G. (ed.), *Rethinking Bakhtin: Extensions and Challenges*, Evaston (Illinois), Northwestern University Press, 1989.

GRAY, C. *The russian experiment in art 1863-1922*, London, Thames and Hudson, 1962.

IOVLEVA. L. “El arte ruso de la segunda mitad del siglo XIX: Los ambulantes, Pavel Tretiakov y su galería”, In: *¡Rusia!: novecientos años de obras maestras y colecciones magistrales (erakusketako katalogoa: martxoaren 29tik irailaren 3ra, 2006)*, Bilbao, Guggenheim Bilbao Museoa, 2006. 132-139.orr.

JACKSON, D. *The russian vision: The art of Ilya Repin*, Schoten, BAI, 2006.

KNOWLES, R. *Political Economy from Bellow: Economic Thought in Communitarian Anarchism 1840-1914*, New York, Routledge, 2004.

KRÉSOVA, N. (Ed.), *Lev Tolstói en el mundo contemporaneo*, Granada, Comares, 2011.

LAURENT, J. (Ed.), *Henry George's Legacy in Economic Thought*, Northampton (Ma, USA), Edward Elgar Publishing, 2005.

- PRYMACK, T. M. "A painter from Ukraine: Ilya Repin". *Canadian Slavonic Papers: Revue Canadienne des Slavistes*, 55.bol. 1-2.zk, (2016): 19-43.orr.
- SARABIANOV, D. *Russian art: from neoclassicism to the avant-garde: painting, sculpture, architecture*, London, Thames and Hudson 1990.
- STAVROU, T.G. (ed.), *Art and culture in the nineteenth-century Russia*, Bloomington, Indiana University Press, 1983.
- STEINER, E. "A battle for the 'People's cause or for the market case: Kramskoi and the Itinerants", *Cahiers du Monde russe*, EHESS, 50.bol, 4.zk, (2009 urria-abendua), 627-646.orr.
- STERNIN, G. *Ilya Repin*, Bournemouth, Parkstone, 1996.
- TOLSTOI, L. *Cartas*, Barcelona, Edicomunicación, 1999.
- TOLSTOI, L. *Diarios (1847-1894)*, Barcelona, El Acantilado, 2002.
- TOLSTOI, L. *¿Qué es el arte?*, Barcelona, Mascarón, 1982.
- TOLSTOI, L. *Zer da artea?*, Donostia, Meettok, 2012.
- WAEGEMANS, E. *Historia de la literatura rusa desde el tiempo de Pedro el Grande*, Madrid, Ediciones Internacionales Universitarias, 2003.